



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ELIZALDE

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2019-10-02	19:00	21:05

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux, Jon, Goratz, Olga			
Herritarrak:	Euskaraz: 13		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 4		Gizonezkoak: 9	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 4	51-65 urte: 2	>66 urte: 7

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	
Aurrekontuak 2020	·Mendiburu 14; 2021 urteko aurrekontuarekin eta altxortegiko diruarekin, udala ordaintzeko moduan dagoen galdetzen da.
Oiartzun	·Mendiburu 14: Eraikinaren kudeaketa nola egingo den galdetu da, ea zerbait erabakita dagoen. Erantzun da orain landuko dela hori. ·Urkabe baitako eraikina bere horretan mantentzen den edo guztiz botako den galdetu da. Erantzun da kanpotik mantentzen dela forma, baina barrua aldatzen da. Planoa azaldu da. ·Urkabe baitako sarrera irteerak nola eta nondik egingo diren galdetu da. Aztertze proiektua martxan dagoela erantzun da. ·Urkabe baita inguruko terrenotan zer egitea pentsatu den galdetzen da. Lorategiak, parkea eta aparkalekua aztertzen ari gara. ·Ingurumena: Oiarzungo ondare garrantzitsuena mendi eta errekek dira. 90.hamarkadan 630 000 zuhaitz landatu ziren hauen biziberritzeko helburuarekin. Baita ere lursail asko erosi edo berreskuratu ziren udalarentzat.



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>Alor hori azken hamarkadan alde batera geratu dela aipatzen da, batez ere, zuhaitzen kimaketa, zaintza,... . Hor aportazio bat eskatzen da udalaren aldetik, bai udala bera eta baita diputazioari eskatuz ere. Diagnostiko bat egitea pendiente dagoela erantzuten da, egoera aztertzeko eta zer egin behar den jakiteko.</p> <p>·Herri mailan ere parke, lorategi eta zelaiak gutxi zaintzen direla aipatzen da.</p>
Auzoa	<p>·Bariantean kendu diren aparkalekuekin, azkenaldian zaila da kotxea aparkatzea. Euskal Herria plaza azpian utzi daiteke baina kotxea mugitu egin behar da, eta Bidegaina etxearen inguruan aparkaleku batzuk ere kendu dira. Udalak honi irtenbidea nola emango dion galdetzen da. Erdigunetik Herriondo ingurura tarte horretan aparkalekua egiteko aukeraz galdetzen da. Urkabe baitako eremuan lur azpiko parkinga egiteko aukera aztertzea proposatzen da, gehiago Mendiburu 14ko eraikuntza martxan jarriko dela ikusita.</p> <p>·Aparkalekuen eta kotxearen erabileraren inguruan elkarrizketa bat ematen da biztanleen artean. Batzuk aparkalekuak eskatzen dituzten bezala, beste batzuek joera kontrakoa izan beharko duela esaten dute, dena giro onean eta errespetuz.</p> <p>· Etxebizitzaren ingurura; Datorren hamarkadan etxe zaharren eta baserrien hustutzea emango dela ohartarazten da, bertako biztanleak oso helduak direlako. Hutsik geratuko diren gunek berriz nola biziberritu aztertu eta herri mailan “debate” bat egin beharko da. Elizalde izango da hain justu arlo horretan hito nagusia.</p> <p>·Amazkarretik Ugaldetxora doan malda gaur egun tamalgarri dagoela aipatzen da. Obrako planoak azaltzen dira eta proposamen ondo ikusten da.</p> <p>·Elizalde auzoantzat trafikoa arazo bihurtu dela aipatzen da, kotxeen abiadura altua dela eta. Azkenean istripu bat gertatzeko arriskua ikusten da. Amazkarreko kurbako kasua aipatzen da bereziki. Karga/deskargako furgoneten abiadura handia aipatzen da plazan barrena.</p> <p>·Plazara sartzen diren kotxe kopurua aipatzen da. Goizean ulertzen da karga/deskargako kamioiagatik, baina arratsaldean plazatik pasatzen den kotxe kopurua gehiegizkotzat ikusten da. Pibotea jarri zen eta baimenduak soilik sar daitezke arratsaldeetan.</p> <p>·Taxisten geldi gunea lekuz mugitzea proposatzen da. Mendiburu kaleko zati batera edo Rafael Pikabea kalera pasatzea.</p>

- Ostiral, larunbat eta igande arratsaldetan trafikoa murriztea proposatzen da, Hiru bidetik plazaruntz igotzen diren kotxe kopurua handia dela eta. Umeen aisialdi ordutan trafikoaren abiadura murriztuz edo kotxe kopurua mugatzea. “Soilik garaje eta anbulategira” adibidez.
- Jexuxek galdetzen du ea plaza ez den lehen, peatonalizatu aurretik, baino seguruagoa. Jendeak aho batez baietz dio.
- Bidegorrian beste komun bat jartzea planteatzen da. Kiroldegi azpikoaz gain, minetarako aldera edo Orereta aldera.
- Merkataritza txikiaren gaia ere aipatzen da, plaza inguruan dauden denda txikien ixtea arazo larria dela.
- Etxe tutelatuak edo behar berezikoentzat pixuekin zerbait egiteko asmoa dagoen galdetzen da etorkizunera begira.
- Guraso talde baten aldetik aztertu da herriko parke guztiak “formatu” bera dutela, txirrista, kolunpio,... eta aztertzen ari dira ea beste parke formatu bat egitea dagoen edo nola ikusten den.
- Hizkuntzaren trataera aztertzea eskatzen da. Bidegorrian eman diren obretako kartelak, kiroldegiko kurtsoen aukerak,... horren gainean egotea eskatzen da.
- Txakurrekin ze asmo dagoen galdetzen da. Hau da, ze irtenbide planteatzen den txakurren arazoei irtenbide bat emateko. Txakur kakak biltzeko kontenedore gehiago jartzea eskatzen da. Txakur guztiak lotuta egon behar dutela gogoratzen da.
- Pikabeneko irteeran ematen diren arriskuak aipatzen dira. Plazatik behera datozen kotxeen abiadura handia da, eta abiadura hori murrizteko zerbait jarri behar da, gainera hori onartuta dagoela aurretik zerbait egitea. Baita ere, errotonda ondoan beti dauden 3 edo 4 kotxe aparkatuak kentzea, leku hori ez baita horretarako.
- Santusene aldeko farolak jartzeko gaia nola dagoen galdetzen da. Hor argiteria beharrezko delako neguari begira.
- Bidegainako zebra bidea aipatzen da, goiko aldean dagoena ekarpen gunera pasatzeko. Bertan arrisku handia dago, orain dela gutxi oinezko bat golpatua izan zela esaten da eta egoera horri irtenbide bat eman behar zaiola. Argi foko bat jartzea proposatzen da gauerako.



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



·Lorazaintza: Mendiburu albaitaritza parean espaloia lorez beteta dago eta hortik liburutegirako aldapan dauden zuhaitzak oso baju daude, eta hauek kimatzea eskatzen da. Leibarreneko parean zebra bidea dago baina honek kroskak dauzka espaloitik karreterara jaisteko. Espaloia lurreraino iristea eskatzen da. Paso de zebatik espalaira igotzeko kroska handia dagoela eta hori begiratu beharko zela. Erdiko isleta rebajatzera begiratu beharko da. Oartzundik arraguarako espaloian dauden sasiak eta zuhaixkak moztea. Lur sailan jabeari espalaira ateratzen diren adaxkak mozteko eskatzen da.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,67
bilera ongi gidatu da	8,78
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,33
Auzotar kopurua	4,89
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,50
Saioa probetxugarria izan al da?	8,38
Egunaren egokitasuna	9,14
Orduaren egokitasuna	8,86
Lekuaren egokitasuna	9,71
Batezbestekoa	8,25